


## Euskal AEko industria-jarduera % 5,4 hazi zen 2015eko apirilean

**Aurreko hilabetearen aldean, % 3,0 handitu zen Euskal AEko industria-produkzioaren indizea**

Eustat Euskal Estatistika Erakundeak egindako azterketan arabera, 2015eko apirilean Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa % 5,4 hazi zen 2014ko hilabete berarekin alderatuta, betiere lan-egutegiaren termino homogeneotan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, hau da, 2015eko martxoarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa % 3,0 hazi zen, behin urteko sasoi horri dagozkion berezko eraginak zuzenduta.



2015eko apirileko datuak iazko apirilekoekin alderatuta, industria sektore guztietan bilakaera positiboa izan dela egiazta daiteke. Hala, *kontsumo ondasunetan* % 6,5eko igoera izan da, batik bat *kontsumo ondasun iraunkorretan* izandako % 22,5eko igoera dela-eta; izan ere, *kontsumo ondasun ez iraunkorretan* igoera askoz ere txikiagoa izan

da (% 1,0). *Energiari* dagokion indizeak % 11,1eko hazkundera izan du, *ekipamendu-ondasunetan* % 10,0ko igoera izan da, eta, *bitarteko ondasunetan*, % 1,7koa.

2015eko martxotik apirilera indizeetan izandako bilakaera, berriz, positiboa izan da *ekipamendu-ondasunetan* (% 2,7ko igoera), *bitarteko ondasunetan* (% 0,7ko igoera) eta *energian* (% 17,5eko igoera). *Kontsumo ondasunak* oro har hartuta ere bilakaera positiboa izan da (% 1,7ko igoera); kasu honetan, hala ere, *kontsumo ondasun iraunkorretan* bakarrik izan da positiboa bilakaera (% 6,9ko igoera), *kontsumo ondasun ez iraunkorretan* % 0,2ko beherakada izan baita.

Euskal industrian pisu gehien duten sektoreak aztertuta, berriz, honakoak dira urte arteko alderaketa eginda 2015eko apirilean hazkunde aipagarrienak izan dituztenak: *zura, papera eta arte grafikoak* (% 13,0ko igoera) eta *makineria eta ekipamendua* (% 10,0ko igoera).

### 1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntzasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
<b>A38 SEKTORIZAZIOA</b>	
<b>SEKTORE NAGUSIAK<sup>(1)</sup></b>	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	0,3
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	9,0
09 - Kautxua eta plastikoak	-2,4
13 - Makineria eta tresneria	10,0
14 - Garraio-materiala	7,2
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-2,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	13,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

**Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea**

Aldiz, badira urte arteko alderaketa eginda behera egin duten sektoreak ere: *kautxua eta plastikoa* (% 2,4ko beherakada), eta *material eta ekipamendu elektrikoa* (% 2,1eko jaitsiera).

Azterketa lurralde historikoka eginda, azkenik, industria-produkzioaren indizearen urtetik urterako bilakaera oso positiboa izan da bai Bizkaian (%8,5eko igoera) bai Gipuzkoan (% 5,5eko igoera); Araban, berriz, % 0,1eko beherakada txikia izan da. Hilabete arteko bilakaera, berriz, positiboa izan da hiru lurraldeotan apirilean: Araban % 4,3ko igoera izan da martxoarekin alderatuta, Gipuzkoan % 4,0ko igoera eta Bizkaian % 1,3ko igoera.

**2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Aldakuntza-tasak. Behin-behineko datuak. 2015eko apirila**

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Api2015/Api2014	M(Api2015)/M(Api2014)*	Api2015/Mar2015	Mar2015/Ots2015
<b>Indize orokorra</b>				
<b>Euskal AE</b>	<b>5,4</b>	<b>1,6</b>	<b>3,0</b>	<b>1,9</b>
Araba/Álava	-0,1	-4,5	4,3	-1,8
Bizkaia	8,5	5,3	1,3	5,5
Gipuzkoa	5,5	1,4	4,0	0,4
<b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b>				
Kontsumo-ondasunak	6,5	7,5	1,7	-1,6
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	22,5	18,4	6,9	-4,5
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	1,0	3,7	-0,2	-0,4
Ekipo-ondasunak	10,0	3,1	2,7	4,2
Bitarteko ondasunak	1,7	-1,3	0,7	1,2
Energia	11,1	1,3	17,5	1,6

(\*) 2015eko urtarrietik oraingo hilerara arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2014ko aldi beraren aldean

**Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea**

**Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua